

Euskera erro eta gara

Bittor Kapanaga



Lan guztiak I

Euskaldunon
hizkuntza eta ikuskera

Bittor Kapanaga

Lan guztiak I

Euskaldunon hizkuntza eta ikuskera

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Aurre lanak: Enrike Alaña, Patxi Alaña, Aintzane Lazkano,
Gontzal Mendibil, Jose Mari Ugaldea 'Willy'

Egilea: Bittor Kapanaga

Argitaratzailea: Gerediaga Elkartea

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Azaleko eta portadatxoetako argazkiak: Maritxu Goikoetxea

Azala: Gertu Inprimategia, Oñati

Argazkiak: Kapanaga-Alaña familia, Maritxu Goikoetxea, Gontzal Mendibil, Euskeraren Jatorria, Juan San Martin Fondoa, Gipuzkoa Net, Wikipedia

Solapako argazkia: Marisol Ramirez/ Argazki Press

Argitaratze data: 2014ko urria

Maketazioa eta inprimaketa: Gertu Inprimategia, Oñati

© Bittor Kapanagaren familia

© Gerediaga Elkartea

© -cc-by-sa (Creativ Commons)

Lege Gordailua: SS-1325-2014

ISBN: 978-84-940017-9-6

Initza

Bittor Kapanaga



- *Initza* lehen aldiz argitaratzen da orain.
- Lan hau *Juan Zelaia* saiakera lehiaketara aurkezteko gertatu zuen 2004an. Ez zen saritua izan.
- *Initza* “aditza” da. Kapanagaren iritzi, aditz edo berboari euskaraz esateko hitzik egokiena.

1.- Zergatik INITZA

Izen hau, **INITZA**, arraro egingo zaio bati baino gehiagori. Ohituak gara beti erderazkoak erabilten, eta horretatik ez datorkigu kalterik, batez ere zuzenak eta egokiak direnean. Honetan izan behar genuen eredia “**infitiboa**” hitza zan, eta erabili ere egiten dugu hala egokitzen zaigunean. Berau euskerara itzuliz, “*amaigabegilea*” izango genuke, nire ustean, baina ez da erabilgarria. Eta erabilgarriak ez diren hitzak hobe dugu bazterrean uztea.

Bestalde, infinitibo hitza erabiliz, beti dakarkigu gogora erderazko eredia eta era-kera. Baina euskerazkoa beste zerbait dugunez, bere garadura eta guzti, uste izan dugu hobe genuela erderazkoa ahaztu eta beste hitz bat erabiltea. Azken batean, hitz bat ikasi eta horretara ohitzea ez da hain zaila. Badut esperientzia horretan.

Eta nire ustez **in** dugunez arlo honetan sortzaile nagusia eta errokoena, bada **IN-HI-TZA** izango genuke ondoriorik garbiena. Norbaitek **h** hori hor behar litzatekeela esaten badu, argiro erantzungo diot: ez dut ezer hizki horren aurka, baina ez naiz inoiz kutsaturik egon atxepatiaz. Eta ez litzaidake atsegin izango “*injitza*” bezelako hitz bat entzutea. Badut eskarmentua holakoetan.

Beraz, irakurle horrek ulertuko duzu izen berri baten beharrak eraginda jokatu dugula. Ondo asmatu dugun ala ez, geroak esango digu.

2.- Gaiari buruz

Lan honen xedea gure hizkuntza hobeto ezagutzen laguntzea da. Eta horretarako, hizkuntzaren arlo zehatz bat aztertuz eta erroetara jotzen saiatuz, gaiari buruzko eretxi sakon bat hartu dezan lagundu irakurleari.

Mendeetatik datorkigun gaitza dugu gure hizkuntzan erderak eredutzat hartuz horien neurrietara, moldeetara eta zentzura makurreraztea gurea. Eta jokaera horretatik sortutako gaitzak izurrite bihurtzen zaizkigu gaurko euskeran.

Hemen eta gaur jorratuko dugun gaia infinitiboarena da. Erderazko izen hau erabilteak ez du esan nahi gaia jorratzean erderazkoa, gatzelaniazkoa eredutzat hartuko dugunik. Ez eta inondik ere. Hizkuntza bakotzak bere izatea du, eta ondorioz, izatasun gaiari buruzko eretxiak asmatzeko, atontzeko eta adierazteko bere eradurak eta erakerak izaten ditu.

Eta gurea bezin zaharra, trinko eta ondo eratua dan hizkuntza bat oraintsu sortutako modernoetara makurreraztea edo hoiene neurrietara eta argietara aztertzea, erokeria ez bada, astakeria bai bada. Eta honen ondorioak larrutik ordaintzen ditu gure euskerak beti, eta batez ere gaur egun.

Gaiak harira dakarkigunez, jarri dezadan adibide bat eta beronek lagunduko digu arazoa sakonkiro ulertzen, eta gure eruditoak eta euskalariak zenbateraino diren erderen (latin eta erromanikoen) dizdirak itsutuak eta lauzotuak ikusten: euskalari batek idatzia da “*el euskera tiene verdadera adversión a crear reflexivos*”.

Arinki bada ere, aztertu dezagun. Gaztelaniak, esaterako, honela jokutzen du: “*despertar*”, norbait lotatik aterazi; eta “*despertarse*”, norbera lotatik itzarri. Edozeinek ulertuko du beste norbait iratzarteko norberak itzartu behar duela aurretik. Eta euskerak bere sen onean horrelaxe jokutzen du: itzarri (itzartu) “*despertarse*”, eta iratzarri (iratzartu) “*despertar*”. Lehen mailakoak lehen egintza adierazten du eta bigarren mailakoak bigarrena. Gaztelaniak, ordea, bigarren mailakotik sortzen du lehenengoa, eta honetan zerbait kontraturatuta dago. Hizkuntza bakotzak esan behar duena esateko bideak aurkitzen ditu beti, baina bide hoiek ez dire beti berdinak izaten. Hau guztia ulertzeko, egoki izango zaizu, irakurle, lan honetan agertzen dugun initz garaduraren zerrenda irakurtea. Argiro ikusiko duzula uste dut.

Beraz, euskera gaxoak ez du gaitasunik *reflexivoak* egiteko, eredutzat behar lukeanaren makurkeriak egiteko. Noraino eroriak ditugun itsutasunaren putzu beltzean gure euskalariak. Bat bakarra balitz, tira, baina gehienen elgorria izaten dugu latinaren eta erromanikoen dizdirak eragindako lauzotasuna. Eta honetatik sortzen zaizkigun izurriteak benetako eritasun gertatzen zaizkigu gure eguneroko bizitzan eta batez ere eskolan.

Aipaturiko euskalari horrek euskera bere berean aztertu izan balu eta hemen erakusten dugun initz garaduraren antzeko zerbait susmatu izan balu, erraz ulertuko zuen gaztelania dabilela honetan herrenka eta euskerak ondo baino hobeto eraturia duela gaztelaniako “*reflexivo*”ak erakusten digun arazoa. Baina horrelaxe bizi gara eta egoera honi aurre egitea ez da erraza. Saiatu gaiten horretan hala ere.

Oraintsu joana zaigun mendean hiru izurrite handi edo gehiago pairatu izan ditu gure hizkuntzak.

Bat, pluralarena. Mendearen erdi inguruan hasi zan eta eruditoen mundua erabat harrotu eta nahastu zuen. Behe mailako gizakiengana geroago heltzen dire izurriteok eta oraino, mendebaldean behintzat, era zaharrean erabilia dugu. Baina jende ikastuna zeharo kutsatua dugu eta irakasleago horren barruan. Beraz, epe luzera...?

Berrikuntzaren asmatzaileak asmorik onenez egin zuena argiro ikusten da, baina hizkuntzaren onerako zalakoan egin zuen eta kitto. Gero hemen gabiltz nahasmen betean. Plurala edo mugagabea ez baita ondo bereizten adin, denbora eta holako gaiei dagokienean. Gogoan dut Zeruko Argian eta geroago Argian idazten nuenean, esate baterako “hogei *urteko* mutil bat” idazten banuen, beti “hogei *urtetako*” agertuko zan zehatz zuzendurik. Saiatzen nintzen “hogei *urtedun*” idazten eta berdin “hogei *urtetako*” izan behar zuen eta kitto. “Hiru *asteen*” idazten banuen, “hiru *astetan*” agertuko zan. Eta erabilian “*astetan*” eta “*asteetan*” ondo bereizten ez ditugunez, agur gure singularra.

Euskaldun batek “zazpi *egunean* geisorik egon naiz” esaten badu, zazpi eguneko aldi batean geisorik egon dala esan nahi du. Eta “zazpi *egunetan* medikua etxera etorri zait” esaten badu, zazpietako egun bakoitzean gertatu dala esan nahi du.

Beraz, arazoa argi zegoen, baina mugagabearen aurkikuntza egin zuen norbaitek dana hankazgora ezarri zuen. Geroago hasi ziren zenbait idazle singularraren defentsan eta “zor-tzi behi daukat”, “hamar mila duro dut” eta holako astakeriak irakurten hasi ginen. Lo-katu egin baizen singular / plural horren arloa.

Beste izurrite bat partitiboarena izan dugu. Erderan ondo arauturik diren arloetan ez dugu izaten arazorik. Arauak bete egiten dire eta kitto. Baina erderak arautua ez duen zer-bait agertzen zaigunean, gureak egin du, gainean dugu nahasketa. Gaztelaniak ez du partitiborik, eta norbaitek arlo hau aztertu zuenean, aurkikuntza harrigarria egin zuelakoan, zera aldarrikatu zuen: **ik (rik)** zala partitiboaren marka. Eta horixe ikasten dute orain gure ikasle guztiek. Eta benetan, hori gezur handi bat da. Marka hori, **ik - rik**, absolutiboare-na da, eta ez partitiboarena. Baina gaztelaniak absolutiborik ere ez duenez, arazoa bihu-rritu egiten zaigu. Lan honen azken aldean, arlo hau arrapatzen duen zerrenda lauki bat erakutsiko dugu eta hor ikusiko duzue argiro arazoa nondik eta zertatik datorrigun.

Arazo honi buruz euskalari batekin hizketan ari nintzela lehengo batean, zera esan nion: "Aizu, gure herriko harategi batera joan eta galdera egiten baduzu, '*ardirik badu-zue?*', berehala erantzungo dizue: '*bai, baina basoan*', edo holako zerbait. Baina galdera honela egiten baduzu, '*ardikirik baduzue?*', orduan erantzuna bestelakoa izango duzu: '*zer nahi duzu, zaiezkia, izterra ala zer?*'" Izan ere, lehen galderan absolutiboa bakarrik sar-tzen da eta bigarrean partitiboa eta absolutiboa, biak batera.

Gi (ki) dugu euskeran partitiboaren marka eta hori hizkuntzaren hastapenetatik age-ri zaigu. Eta indar handia du gaurko erabileran ere: **ardiki**, **oiloki**, **txarriki**, **gozoki**, **ba-razki**, **jaki**, etab.

Eta hirugarren izurritea, orain hemen jorratu behar dugun arlokoa da. Norbaitek noiz-bait asmatu zuen harako “*du sufijo tardío, proveniente del latín*”, eta gure ikasle guztiek horixe ikasi dute, hizkuntza maisuen bedeinkapenarekin. Zenbaiti esan izan diet hori ge-zur hutsa dala, baina erudito guztiek ontzat dutena, nola izan daiteke gezurra!

Esaldi hori asmatu zuenak kontuan izan behar zuen badirela hizkuntza zaharrak mun-duan, latina baino milaka urte zaharragoak, **du** infinitiboak egiteko darabiltenak edo era-bili izan dutenak: sumeriera, armeniera (honek **urartu** hizkuntzatik), eta drabidak. Be-raz, milaka urte zaharragoak diren hizkuntzak eta euskerak fonema bera erabilten badu-te zeregin berdina egiteko (infinitiboak sortzeko), nola demontre bururatu zitzaion asmatzaile horri “*proveniente del latín*” hori, gaur gure hizkuntza erro-errotik hondatzeko erabilia dan esaldia “*egi sakratua*” sorteraziz?

Dirudienez, asmatzaile hori ere, beste askoren antzera, latinez liluraturik eta lauzoturik zebilen eta hortxe, latinean, aurkitu zuen *-tum* atzizkia, partizipioak egiteko erabilia (*fac-tum*). Eta jainkoak bidalitako hizkuntza zoragarrian zalantza biderik ezin izan daitekeen- ez, bada argi zuen sorkuntzaren iturria: *-tum* latinetik sortua dugu gure **du** eta partizi-pioak sorterazten dituen. Astakume batek ere ez sinestekoa dugu asmakeria hau, alaba batek bere ama erditu duela esatea bezelakoa baita, baina gure munduko eruditoek irun-tzi egin dute eta gaur ez dakit norbait aurkitu ote daitekeen asmakeria hori ontzat ez due-nik.

Bestalde, “*provinente del latín*” horrek purista anakroniko askoren aurkakeria sorterazi duela dirudi, eta euskera erabilitik arras kentzea erabaki dute. Baita egin ere: eskolan, irratieta, telebistan eta egunkarietan, batzuetan beste batzuetan baino gehiago, **du** hori suntsitu dute. Eta segidan **i** ere bai. Baina **n** kentzen ez dire ausartzen, eta hirurak zeregin berdina betetzen dutenez, sortu zaigun nahasmena ikaragarria da, gure hizkuntzari ondorio beldurgarriak ekarriz.

Eta ondorio hauek hein batean baretzeko edo konpontzeko asmoz bururatu zaigu lan hau kaleratzea, eruditoak ere konturatu daitezten behe mailakoek darabilten hizkerak jagoen dituela bere senean hizkuntzaren arauak.

Izan ere, **du** kentzeak izugarritzko kaltea dakarkio euskerari, edozein hitzetik aditz bat sortzeko erabili ohi dugun fonema dugulako. Eta asmakeria zoro baten eraginez hollako sorgailu miragarri bat baztertzea eta arbuiatzea sinestezina egiten zait neuri behintzat. Non ete dago euskaldunen sena eta zuhertasuna, eruditoengan ez behintzat. Eta nola sinetsi dute partizipioaren kontua? Horretarako beti **-a** erabilten baitugu: ikusia, erabilia, aurkitua, etab.

Gaur egun, euskalari gazte batzuk oharturik ditugu gure hizkuntza gatza eta piperarra galtzen ari dala, eta euskera batuari egozten zaio gehienbat gaitz horren eragiletasuna. Nire ustez, ordea, hemen aipatu ditugun hiru izurriteok izan dezakete erru askoz handiagoa. Eta jasan ditugun beste gehiegikeria batzuk ere bai (atxepatiak askoz gutxiago).

Beste aro batzuetan bezela gaitz baten aurka egiteko otoitz bat asmatuko balitz, gaur ere honakoxea iruditzen dut gurea:

Jauna,
jagon ezazu (jagoizu) gure hizkuntza bere senaren barruan,
eta salba ezazu (salbaizu) eruditoengandik,
irakasleengandik eta asmo oneko laguntzaile eta salbatzaileengandik.
Baita atzerrietako erasoengandik ere.
AMEN!

3.- Initzia: erroa, garadura

ERROA	GARADURA				
	In ¹	du ² tu	era-	-erazi -erain	era- era- -erazi -erain
IN	in		erain	inerain	erainerain ³
	<i>ein, egin</i>				
AR ⁴	Ari	ardu jardun artu	erari (erazi)	arierazi jardunerazi artuerazi	erazierazi
a ^{4b}	<i>jan</i>		eran (edan)	janerazi	eranerazi
ad	adi	aditu		adierazi	
ama ⁵	amai	amaitu		amaierazi	
apa	apain	apaindu		apainerazi	
ar -gi ⁶	argi	argitu		argierazi	
ast	astin	astindu		astinerazi	
ater	ateri	atertu ⁷		aterrerazi	
azter		aztertu		azterrerazi	
bil -uts ⁸	biluzi	biluztu		biluzerazi	
bir	birrin ⁹	birrindu		birrinerazi	
biz	bizi	biztu		bizierazi	
de ¹⁰	dein <i>in</i>	deitu		deierazi	
ebag	ebagi		erabagi	ebagierazi	erabagierazi
ebats	ebatsi		erabazi	ebatserazi	erabazierazi
ego	egon	egondu ¹¹	eragon	egonerazi	eragonerazi
egotz	egotzi		eragotzi	egotzerazi	eragotzerazi
ema	eman		eraman ¹²	emanerazi	eramanerazi
entzu	entzun		erantzun	entzunerazi	erantzunerazi
esa	esan		erasan	esanerazi	erasanerazi
eska	eskain	eskatu ¹³		eskainerazi eskaterazi	
etse	etsi		erexi ¹⁴	etsierazi	erexierazi
etz	etzan		eratzan	etzanerazi	eratzanerazi
gar ¹⁵	garbi	garbitu		garbierazi	
gar a		garatu		garaterazi	
gar a	garai	garaitu		garaiterazi	

ERROA	GARADURA				
	In ¹	du ² tu	era-	-erazi -erain	era- -erazi -erain
ge ¹⁶	gen	gendu	eragendu	generazi	eragenerazi
ge	ken	kendu		kenerazi	
ibil	ibili	ibildu	erabili	ibilerazi	erabilerazi
ig ¹⁷	igi	igitu	erigi	igierazi	erigierazi
ig a ¹⁸	igan		iragan	iganerazi	iraganerazi
igar	igarri		iragarri	igarrerazi	iragarrerazi
iger ¹⁹		igertu		igerrerazi	
iges	igesi				
igo	igon		iragon	igonerazi	iragonerazi
igor	igorri			igorrerazi	
igortz	igortzi			igortzerazi	
igu	iguin ²⁰	iguindu		iguinerazi	
igur	igurdi			igurderazi	
ikas	ikasi		erakatsi	ikaserazi	erakaserazi
ikus	ikusi ²¹	ikustu	erakutsi	ikuserazi	erakuserazi
ikuz	ikuzi	ikuztu		ikuzerazi	
il ²²	il		erail	ilerazi	erailerazi
inaus	iñausi	inaustu		inauserazi	
ipin ²³	ipini			ipinierazi	
ira	irain	iraindu		irainerazi	
iraz	irazi		irarazi		
ito	ito in		irato		
itz ar ²⁴	itzarri	itzartu	iratzarri iratzartu	itzarrerazi	iratzarrerazi
iz ²⁵	izin			izinerazi	
iz a	izan	izandu	irazan	izanerazi	irazanerazi
iz u ²⁶	izutu		izuterazi	
iz u	itsutu		itsuterazi	
JA ²⁷					
ja	Jai n		jarain		jarainerazi
ja al	jalgi		eralgi	jalgierazi	eralgierazi

ERROA	GARADURA					
	In ¹	du ² tu	era-	-erazi -erain	era- era-	-erazi -erain
ja antz ²⁸	jantzi		erantzi	jantzierazi	erantzierazi	
ja ar ²⁹	jarrai jarraitu			jarraierazi		
ja ar	jarri		erarri (ezarri)			
ja emon ³⁰	jamon		jaramon	jamonerazi	jaramonerazi	
ja go ³¹	jagon		eragon	jagonerazi	eragonerazi	
ja ig ³²	jagi		eragi	jagierazi		
ja ig	jaiki		eraiki	jaikierazi	eraikierazi	
ja ik	jakin			jakinerazi		
ja its	jaitsi		eraitsi	jaitsierazi	eraitsierazi	
ja so	jason			jasonerazi		
ja urt ³³	jaurtin jaurtu			jaurterazi		
ja uts ³⁴	jausi		erausi	jauserazi	erauserazi	
ja uts	jauzi		erauzi	jauzerazi	erauzerazi	
jo ³⁵	jo in		erajo (eraso)	joerazi		
oa ³⁶	joan		eroan	joanerazi	eroanerazi	
ao (ator)	etorri		eratorri	etorrerazi	eratorrerazi	
os	osi ³⁷ ostu		erosi	osterazi	eroserazi	
uk -a	ukan ³⁸			ukanerazi		
uk e-	euki			eukierazi		
ur	uri urtu			urtuerazi		
uts	utsiustu			utserazi		
Onomatopeiak						
lo ³⁹	lo in lotu			loterazi		
us ⁴⁰ -a	usain usaindu					
xot ⁴¹	xotin in					
zart ⁴²	zart in zartatu			zarterazi		
zut	zutin zutindu			zutinerazi		

1. **In**. Nire ustez, fonema hauxe dugu gure hizkuntzaren arloan aditz zentzua dakarkigun errorik zaharrena eta argiena. Aldaki arbuigarriztat hartua eta baztertua izan da, baina hala ere, berezko euskaldungoak gehien erabilten duen forma dugu gaur egun ere. Bidasoaz sortalderantz Nafarroan eta Araban guztiek erabilia. Bizkaiko eskualde askotan eta Gipuzkoako eremu zabaletan ere **in** forma hauxe dugu erabiliena. Bizkaia eta Gipuzkoa arteko zenbait eskualdetan **ein** forma da erabilia, **e** eufonikoa ageri zaigularik horretan. Aurrizki eufoniko hau hitz zahar askotan ageri zaigu (*uri - euri* esaterako) eta oso zaharra dirudi gure hizkuntzan.

Egin forma kultismo bat dugu nire ustez, eta ez dut uste inon ere berezko euskaldungoak erabilten duenik. Euskaldunberriek barkatu beharko didate, baina nik honelaxe ikusten dut. Hitz honek badu, ordea, erabilera zehatz bat gure artean, aditzondo zentzuan edota zentzuak erderazko “*justo*” edo “*exacto*” izanik: “hamabiak egina dire”, “litro bat egin egina dago”, “horixe erosteko diru egina daukat”.

Beraz, lantxo honetan **in** fonema hartzen dugu arlo honetako errotzat eta oinarritzat. Izan ere, aditz zentzuaren ama eta sorburua dugu fonema hau euskera munduan, eta benetan duen izaera onartu nahi diogu.

Erabileran baditu bere arauak, gehienbatean zehazki betetzen direnak. erroa kontsonantez amaitzen danean **i** hartzen du infinitiboak egite orduan. Erroa bokalez amaitzen bada, **n**. Baina bokala **a** danean, ez zaigu hain argi ageri: **jan**, **eman**, **etzan**, **esan**; baina **jai**, **amai**, **jarrai**... eta beste batzuetan **in** osoa, **zain**, **eskain**, **etab**. Baliteke aldi zaharretan **-a** ondoren **in** osoa hartzeko joera hori nagusi izan izana. Esaterako, gaztelanian “*amainar*” aditza ageri zaigu; beraz, gaztelaniak hitza hartu zuen garaian euskalkian aditz erabilia “**amain**” izango zala pentsatzea bidezkoa da.

2. **Du (tu)**. **In** fonemarekin lehia bizian, **du** hauxe dugu bigarren sortzailea infinitibo arloan. Indar handia du, edozein hitz aditz (initz) bihurtzeko gaitasuna du eta euskaldungoak inolako arazo eta bildurrik bage erabilten du. Batzuetan gehiegiz ere bai. Fonema honen zeregina gure hizkuntzan benetan harrigarria da; edozein hitzetik infinitiboak egin: kirten - kirt**endu**; otso - otsot**u**; gizon - gizon**du**; gogor - gogort**u**; ahul - ahul**du**. Ez dakit munduan beste hizkuntzaren batek honelako baliabiderik izango ote duen, baina hau benetan harrigarria dugu. Baina, baina... beti zerbait izaten dugu: norbaitek noizbait honako hau asmatu zuen, “*du sufijo tardío, proveniente del latín...*” eta gure gazterriak bidebakokeria hauxe ikasi behar izan du eskolatze garaian. Gero, eta ez da harritzekoa, purista anakronikoak edo sortu izan bide dira, eta gaur egun, baliabide harrigarria dugun fonema hau gure hizkuntzatik ezabatzeke ahaleginak ikarragarriak dira. Funtsean, gaurko eskolan ezabatua dago, baina euskaldungoan duen indarra eta errotasuna direla eta, ez da behingoan galduko. Ganera, **du** ezabatzeak **i** ezabatzea ere ekarri du gure purista hoi buruetara. Baina **n** ezin dute ezabatu, eta hirurak maila berekoak izanik, nahaske-ta izugarria dugu sortua gure hizkuntzalarien artean. Ez dakit noiz argituko diren buruak eta baretuko gogoak, baina beharrezkoa dugu arlo honetan zentzuzko erabakiak hartzeko garaia heldu dadin, astiro eta emeki bada ere.

Ondorioei dagokienez, oso ezberdinak ageri zaizkigu bi fonemok initz sorketan duten lehia horretatik. Batzuetan esanahi bereko initzak sortzen zaizkigu: *amai / amaitu, ken*

/ *kendu, jarrai / jarraitu, izan / izandu, egon / egondu...* Badirudi alferreko bikoizdura bat ageri zaigula hemen, baina erabileran eskualde batzuetan forma batzuk eta besteetan beste batzuk erabili ohi dira. Esaterako, Bizkaia aldean *izandu* eta *egondu* formak ia itsusiztat hartzen dira, eta alderantziz, *ken* eta *jarrai* formak onartu eta ulertuak izan arren, beti *kendu* eta *jarraitu* formak erabilten dira.

Beste batzuetan, kontraposiziozko initzak sortzen dire: *eskain / eskatu* esaterako. Eta sarritan, lehen initzak bere adiztasuna galdu eta aditzondo edo izen bilakatu dalarik, bigarrenak betetzen du bere zeregina: *birrin / birrindu, garbi / garbitu, usain / usaindu, irain / iraindu*, etab.

3. Initz garadura hau, **in / erain / inerain / erainerain**, honelaxe argi eta garbi erabilia dugu gaur egun ere, euskal sartaldeko eskualde batzuetan. Neronek horrelaxe erabilten dut bizitza osoan eta inguruan ere horixe entzuten dut. Beraz, ez da asmakeria bat.

Hemen argiro ulertu behar duguna honako hau da: garadura horretako lau mailetan sortzen zaizkigun hitzak, guztiak berdinki direla infinitiboak, ez baita aldatzen izaera hori. Aldatzen dan bakarra ite (egite) maila da: **in**, norberak edo beste norbaitek in; **erain** (erazi), induzioz edo aginduz beste norbaiti erain; **inerain** (inerazi), ezinbestezko aginduz itera behartu norbait; **erainerain** (erainerazi), ezinbestezko aginduz hirugarren bat itera behartzera behartu bigarren bat. Beraz, ite maila da aldatzen den bakarra. Eta garadura osoa initz dugu.

Zenbaitentzat ulertezina izan daiteke hau guztia, batez ere erderaren dizdirak itsuririk bizi garelako aspaldietan. Edonola, bigarren eta hirugarren mailen artean bada halako berdintasun antzeko zerbait. Duten aldea zera da, hirugarren mailakoek indar gehiagoz (ezinbestekotasunez) behartzen dutela itea.

4. **AR** fonema hau balio unibertalduna dugu gure hizkuntzaren erroetan, eta hemen ere badu bere ekarte baliotsua. Lehen mailan sortzen dituen bi initzak **ari** eta **ardu** (jardun), zenbaitentzat urrundik ere alkarrekin zerikusirik ez zutenak, argiro ageri zaizkigu sorkari bikiak bezela. Baina ekarpen horren garrantzia, batez ere bigarren mailako **erari** (erazi) horretan dago; honek gaurko euskera erabilian duen indarra izugarria baita. Aldaki asko ditugu, sarritan aditz ezberdinak direla pentsaerazten digutelarik: *erazi, arazi, erazo, arazo, azo, azi...*

4b. **A** edo **ja** dugunean erroaren hasiera, ez da inondik ere erreza izaten zera jakitea edo antzematea: ea **j** hori ahotsik zaharren horren bustidura dugun ala **iz** fonematiko ahoskia dugun = *iza, ixa, ja (ya)*. Beraz **jan** honetan bustidura gisa ipini dut. Eta bigarren mailan sortzen zaigun **eran**, benetan bitxia dugu; euskaldungoak gehienbatean era honetantxe erabilten du, *eran*, eta garadura honek badu antropologia ikerketak eragiteko beste indar.

5. **Ama**. Hitz honek gaur duen esanahiak arazoa nahasten badu ere, bere errotiko zentzua **azken** edo **amaitze** esanahia dala argiro ikusten dut nik. Euskeraren erroetan, **ma-**

ter ustea adierazteko, **aba** (eba) ageri zaigu, senitarte arloko izenak garatzean ageri zaizkigun bezela. **Aba / ama** aldatze horren aztarna aurkitzeko, aski dugu gaur mendebaldean erabiliak diren bi hitz alkarrekin lotzea: *ugezaba / ugezama*, biak sortzez erro berekoak, eta zentzu berekoak, baina lehena gaur zentzuz aldatua. Badu honek alderdi egokia txosten jakingarri bat egiteko baina hemen ez dugu horretarako astirik.

Zenbaki arloan ageri zaigu **ama** hitzaren eragina argiro eta garbiro. *Hamar* (azken zenbakia noizbait), eta *hamaika* (*amaike*) “*infinidad*” zentzuduna; harrigarria bada ere, gaurdaino iraunerazi du euskaldunak eta Euskalerra osoan, “*infinidad*” zentzu hori: **amai-ge**.

Esan beharra dugu, lehen mailan ageri zaizkigun bi initez aparte, izan daitekeela beste forma bat ere, oso zaharra eta gaur nahiko ilundua: **amatu**. Honetatik sortua izango litzateke gaur sartaldean erabilia dan **amatau** (“*apagar*”), sua hil edo azkendu. Eta gaztelaniak harturiko “*amatar*” aditza ere erro berekoa izan daiteke.

6. **Ar-gi** honetako bigarren zatia, dirudienez, hasieratiko partitibo zentzuzkoa izan daiteke; beraz, initz inoiz izan bagea. Honako edo antzeko kasu guztietan bezela, bigarrenak hartzen du bere gain zeregin hori.

7. **Atertu**. Hemen lehen initzak (*ateri / aterri*) galdu egin du bere adiztasuna eta bigarrenak betetzen du zeregin hori.

8. **Bil-uts**. Erra honen zentzuarekin espekulatze zorrotzak egin daitezke, baina hori ez da gure asmoa. Agertu beharra dugu, batzuen ustez, **bil** honen erroa latinetik **bil** dala. Baina gizakiak ilea (ulea) inon badu, buruan du batez ere, eta burua ez da sartzen biluzik hitzak dakarkigun zentzun arloan. Larrutsik, ortutsik eta halakoak arruntak ditugu gure hizkuntzan eta, nire ustez, bilutsik hitzean ageri zaigun **bil** hori beste nonbaitetiko izan daiteke: barrabil hitzetikoa, esaterako.

9. Honetan ere **birrin** initzaren izen bilakatu zaigu eta **birrin**-k betetzen du aditz zeregina.

10. **De**. Fonema honek badu urruntasun zentzu bat aditzean ere ageri zaiguna: **dakar**, **dator**, **dabil**, beti urrunekoak egiten duena. **Dei** hitzak galdua edo ia galdua du bere adiztasuna eta, mendebaldean behintzat, “*dei in*” edo “*deitu*” formak dire erabiliak.

11. **Egondu**. *Egondu* eta *izandu* formak oso erabiliak dira Gipuzkoa / Nafarroa mugetako eskualdeetan behintzat, eta baliteke beste batzuetan ere erabiliak izatea. Izatez, besteok erabilten ditugun **zaindu**, **jarraitu**, **garaitu**, **amaitu** eta abarren kasu berbera da.

12. **Eraman**. Erderazko “*llevar*” ustea adierazteko ez dirudi hitzik egokiena dugu nik hau. Euskaldungoaren ia erdiak darabilen **eroan** initzaren dugu honetan egokiena eta zuzena. *Eraman* hitzaren hasierako esanahia, dirudienez, “*enviar*” izan zitekeen.

13. **Eskain / eskatu.** Hauxe dugu initz zerrenda osoko ondorioz politena eta aberasgarriena. Kontraposiziozko aditzak sortzea benetan dugu bitxia eta polita. “-du, *sufi-jo tardío...*” asmatu zuen harek ez zuen ezagutzen dirudienez honako hau, edo ez zuen zaletasunik euskerak bere barrutik erakusten dizkigun jakingarriak ikertzeko. Zorioneko latina, Jainkoak zeruetatik igortzen digun altxor bedeinkatua!

14. **Eretxi.** Hemen ikusten dugu argi eta garbi initzaren garadurak gure hizkuntzan duen garrantzia eta eragina. Gaur, lehen mailako **etsi** hori nahiko hondatua dugu erabilera oker baten ondorioz: **galetsi** edo **ezetsi** esan beharrean, eskolan behintzat, **etsi** soilik erabilten da, eta honek bere eragina du. Bide honetan joanez, aspaldietako **sinetsi** (zintetsi), **obetsi** eta holakoak hil ingo zaizkigu.

Bestalde, garbi ikusten dugu bigarren mailako **erexi**, sartalde osoan erabilia baina gaur “*kultoe*k” baztertua, beste formen sortzailea dugula: *eritzi, iritzi...*

15. **Gar.** Fonema honek beste zentzu batzuen artean **ur** zentzua ere badu gure hizkuntzaren errailetan: *garbi, garden, negar, garnu, garo...* Horretatik sortua dirudi **garbi** initzak, baina gaur bere adiztasuna galdua du beste askok bezela. **In** erotik sortutako enpatua dirudi ibilbide horrek: aditz, aditzondo, izen...

16. **Ge.** Fonema honek getasun (carencia) ustea adierazten du hizkuntzaren errailetan eta arlo guztietara itsasten du ustekizun hori. Hala ere euskalariak ez dire ohartu gehienbete horretaz, eta lehenengoz hori adierazi nuenean neureak eta bi entzun behar izan nituen. Arlo honetan, **gen** (ken) izan da errotzat hartua, eta horretatik sortu da halako gezurbide bat: **gen** erroa izanik infinitiboa ere bada, erabileran horrela erakusten duelako. Beraz, beste erroak ere infinitiboak dire eta kitto. Baina benetako erroa **ge** da eta ez **gen**; hau initz da, argiro ikusten dugunez.

Bigarren mailan agertzen zaigun **eragendu** hori dugu bitxia eta jakingarria benetan. Bitxia zentzu batean bakarrik, inork ez duelako lotu inoiz initz garadura honekin. Eta, bestalde, hiztegi zaharretan-eta ageri zaigu *erahendu / eraendu* hitza, arkaikotzat hartua eta “*gobernar*” zentzua duelarik. Baina erdal ikerlariek esaten digutena kontuan hartzen badugu: “*antiguamente ‘gobernar’ se reducía a cobrar impuestos para hacer la guerra*”, argiro ikusiko dugu honako *eraendu* arkaiko hori **eragendu** dala benetan eta “*gobernate*” zentzu hori nondik datorkion.

Lantxo honetan agertzen zaizkigun holako jakingarri guztiek zera adierazten digute: euskera, aspaldietatik egina dagoen hizkuntza trinkoa eta ondo eratu dugula, baina milaka urtetan zehar pairatu izan dituen bazterketa eta higidurak ilungune ugari sorrerazi dituela.

Beraz, berriz ere erroak aurkitu beharra dugu, ez fantasiak iteko, non eta zertan gabiltzan jakiteko baizik. Hitz bakotxa bere erroetara lotuz, askoz argiago eta zehatzago jakingo dugu bere zentzua. Eta taiozko hizkuntza eskola bat inoiz izango badugu, hizkuntza bera ondo ezagutzea izango du lehen zeregina. Bestalde, euskeraren barruko erakerak hobeto ezagutuz, zera agertuko zaigu, gaurko euskalkiak ez dutela euren artean guk uste dugun beste ezberdintasun eta ez direla bata besteagandik hain urrun.

Ge honek aldakiak ditu: *ke, ga, ka...* Azkuek berak ere, arlo honetan ari zenetan, **ga-ka** aldakiak hobetsi zituen, beraz ondorengoek ezin asmatu erroa non zegoen.

17. **Ig**. Fonema honek mobimendu edo mugitze zentzua du eta lehen mailako initzetan ondo erakusten du hori. Bigarren mailakoak aldaki pila bat ditugu: *erigi, irigi, iregi, ideki, idiki, edegi*, etab. Uste izatekoa da honakoetatik sortuko zutela noizbait Babel dorreko nahasturaren ipuina.

Arlo honetan, mugitzen zentzuan, kontuan hartu beharrekoa dugu bi fonema eta bi initzgaradura ditugula gure hizkuntzan, alkarren kontrakoak. Bata, hemen darabilgun hau, eta bestea **lo** (“*inmóvil*”), eta honetatik **lotu** (“*inmovilizar*”), **loka** “**lo-ge**” (“*móvil*”). Funtsean, bi ustekizun, kontrakoak baina ezberdinak errotik. Berdintzea, erderak eragin digu, berak ustekizun bakarra duenez... Eta honako kasuak asko ditugu gure hizkuntzan, inork inoiz ikertu bakoak; eta txarragoa litzaigukeena, inork susmatu bakoak. Honakoxeak dira *latinopatiak* eta *romanopatiak* ekarri dizkigun ondorioak.

18. **Ig a**. Erroaren eta inizkiaren artean sartzen zaigun **a** hau sarritan agertzen zaigu, eta pentsatzekoa da hizkuntzaren hastapenetan esanahiak ugaritzeko aldakiak sortu beharrak eragina izango dala. Beste batzuetan erroaren aurrean **e**- eufonikoa agertzen zaigu.

19. **Igar** eta **iger**. Honetan nahasketa konpongaitz bat dugu gure hizkuntzan. Eskualde batzuetan *igartu* eta *igarri* erabilten dire eta beste batzuetan *igertu* eta *igerri*. Funtsean e/a arazo hauxe dugu gure hizkuntzako nahasketarik nazkagarrienetakoa. Ondo ikertu beharrekoa bai, baina konponbide gutxi ikusten zaiona.

20. **Iguin** ere izen bihurtua dugu, beraz adiztasuna galdua beste asko bezelaxe. Beste kasuetan bezela, **iguindu**-k betetzen du initz zeregina.

21. **Ikasi** eta **ikusi** ditugu garadura osoa ederki betetzen dutenak, eta irakurleari hau guztia ulertzen lagunduko diotenak.

22. **II**. Fonema hau, benetan zaharra, lehen mailako initzik sortu ezinik geratua dugu. Badire beste honako kasu batzuk ere. Guk, **il in da** edo **il da**, berdintsu esaten ditugu, ez arras berdina ordea.

23. **Ipini**. Bi ahoskerak hartzen ditu: **ipini** eta **imini**.

24. **Itz ar**. Garadura honetako initz guztiak gaur egun erabiliak ditugu bertan ageri duten zentzuan. Lehen mailako biak, **itzarri** / **itzartu**, zentzu berean erabilten ditugu. Initz garadura hauxe dugu erderazko erreflexiboaren kontraturatasuna erakusteko armarik egokiena.

25. **Iz** dugu euskera barnean fonemarik indartsuena. Gaur eta hemen ezin dugu honetaz jardun, baina hizkuntzaren arlo guztietan ageri zaigu. Mendebaldeko sartaldean **izin** forma ageri zaigu oraino bizirik, eta arkaikotasunaren sinboloa edo ikurra dugu.

26. **Iz u: u** fonema honek negatibotasuna adierazten digu eta zentzu horixe dute **izu-tu** eta **itsutu** aditzek.

27. **JA**. Fonema honek indar handia du gure hizkuntzako arlo askotan, batez ere initzen sorkuntzan. Nire ustez, **iz** fonematik sortua dugu eta agertzen dizkigun zentzuak asko dire, baina batez ere norberaren buruarekiko ustea, pentsamendua, etab. Arazoa izaten da noiz den fonema bera eta noiz **a** fonemak hartzen duen bustidura bereiztea.

28. **Jantzi** initzak ematen digun ikerbidea ere oso garrantzitsua da. Erro batetik sortutako **jantzi / erantzi** bikoteak kontrako ustekizunak adieraziz azterbide bat eskaintzen digu. Hor ditugu **jan / eran, jai / jarain**, eta beste batzuk ere, azterbide horretan lagungarri izan daitezkeenak.

29. **Ja ar**. Hemen ere arazo berdina dugu: bustidura hutsa izan daitekeela hasierako **j** hori. Bigarren mailakoan, **erarri / ezarri, erari / erazi** kasuan bezela, zera ageri zaigu: hitz bateko bi silabetan (jarraikoetan) **r** ahotsa ageri danean, bietatik bat **z** bihurtzen zaigula. Kasu askotan ageri da hau hitz zaharretan.

30. **Ja emon**. Hemen **jamon** eta **jaramon** initzak gaur egun esanahi berberarekin erabiliak dire, herri batzuetan **jamon** eta beste batzuetan **jaramon**, baina beti zentzu berean. Esan daiteke ez dala beti horrela izan eta batak edo besteak zerbait galdu duela. **Entzun / erantzun** bikotea eta aurreko 28. atalean aipatu ditugunak izan daitezke lagungarri arazoa aztertzeko. Initz hauetan ere hasierako **j** hori bustidura hutsa izan daiteke. Bigarren mailakoak erakusten diguna oso adierazgarria da. Hau, **jaramon** eta **jarain** ditugu joera hori erakusten diguten bakarrak.

31. **Ja go. Jagon** initzak sortzen du eta dirudienez **egon** ustearekin zerikusia du. Sartaldean oso erabilia da eta “zain egon” edo “ardura izan” zentzua adierazten du. Erderazko “*cuidar*” hitzaren parekoa.

32. **Ja ig**. Lehen ere aipatu dugu **ig** fonema hau. Higidura eta beste zentzu batzuk adierazten ditu eta hemen **ja** fonemari uztartua dugu.

33. **Ja urt**. Benetan zaharra dugun **urt** fonema honek erderazko “*salida*” hitzaren zentzua ematen digu. Gaur, mendebaldean, **jaurti, jaurtin** eta **jaurtu**, hiru formak erabilten dire erderazko “*lanzar*” ustea adierazteko. Ustekizun arlo berekoa dugu zerrenda honetan sartu ez dugun **urten** ere. **Urt-in** izan zitekeen hasierako forma eta horretatik **urten / irten**.

34. **Ja uts.** **Uts** fonema honek, beste zentzu batzuen artean, erderazko “*vacío*“ hitzak adierazten diguna ere badu. Eta **jausi** eta **jauzi** hitzek, bakotzak bere aldetik, horixe adierazten digute: hutsera egin, hutsean murgildu, lehenak halabeharrez edo ustekabean, eta bigarrenak nahi duelarik.

35. **Jo. Jo, il** bezela, lehen mailako initzik sortu bagea dugu. Hala ere, bigarren mailako **erajo / eraso** hori benetan harrigarria dugu.

36. **Oa. O** fonemak ur edo hurbiltasuna adierazten digu sarritan: *hona, horra, honetan, horretan*. Eta **a** fonemak alderantziz, urruntasuna: *hara, han, hartan*. Beraz initz hauen sorrera benetan zaharra izan behar, horixe adierazten baitigute: hemendik hara egitea **oa** (*joan*), eta kontrakoa, handik hona egitea **ao** (*ator / etorri*). Benetan bitxia eta erakusgarria.

37. **Osi.** Zerrenda osoan hauxe dugu bakarra norbaitek asmakeria bat dala esan dezakeena. Beste guztiak bizi dire gaurko euskeran, baina hau ez. Nik ez dut inoiz entzun eta ez irakurri ere. Baina garaduraren arauak eskatzen du bere izatea. Eta bigarren mailako **erosik** ematen dio benetako ziurtagiria. **Ostuk** arauz kontra hartzea adierazten digu eta **erosik** trukean hartzea. Beraz, ez dago zalantzarik **osi** ere izan dala noizbait, eta bere zentzua hartze arlokoa izan beharko zala.

38. **Ukan.** Initz hau eta **euki** erro berekoak direla argiro ageri da. **Uk** erroa dute sorburua eta erro honek batean **-a-** artekaria hartzen duela, bestean **e-** aurrekaria. Hurrengo ataleko **uri** initz izanak ere aurrekari horixe hartu du **auri** hitza sortzeko.

Arlo honexetan sortua izan daiteke auzitan dugun **du** inizgilea ere, nik uste dudanez. Baina hori hurrengo batean aztertzeko utziko dugu.

39. **Il** eta **jo** bezela geratua dugu **lo** ere initz sorketan, erdibidean. Bigarren inizgilearekin garatua du **lotu** forma hala ere. Fonema honen zentzua gelditasuna da, **ig** fonemaren aurkakoa, aurrerago adierazi izan dugun eran.

40. **Us** honetatik sortzen zaizkigun lehen initzak galdua du bere adiztasuna eta besteak betetzen du bere egitekoa.

41. **Xotin** ere izen bihurtua dugu, eta horregatik berriz **in** hartu beharra du aditz zeregina egiteko.

Azken kasu hauek onomatopeiatzat hartu ditugu baina aitortu beharrean gara aurreko asko ere gauza bera direla.

42. **Zart** honen kasua ere aurrekoan berdina da.

HITZ LOTURAGILEEN ZERRENDA

Usterazleak		Adierazleak Galdegileak	Zaterazleak	Zalantzaz- koak	Aukeragi- leak	Atzizkiak
Baiezkoak	Ezezkoak					
Ezer	Ezerez	Zer	Zerbait	Edozer	Zernahi	-a
Ezein	Ezeinez	Zein	Zeinbait	Edozein	Zeinnahi	-xe
Ezenbat	Batez	Zenbat	Zenbait	Edozenbat	Zenbatnahi	
Ezela	Ezelaez	Zela (n)	Zelabait	Edozela	Zelanahi	-la
Inoiz	Inoizez	Noiz	Noizbait	Edonoiz	Noiznahi	-n
Inon	Inonez	Non	Nonbait	Edonon	Nonnahi	-n
Inor	Inorez	Nor	Norbait	Edonor	Nornahi	
Inola	Inolaez	Nola	Nolabait	Edonola	Nolanahi	-la
MARKAK						
-Ik (-rik)			-gi (- ki)	edo	nahi	

GAZTELANIAN

Tabla de fijación

Idea primaria	Absolutivos Galdegileak	Interrogativos	Partitivos	Ignorativos	Optativos
	Positivos Negativos				
Ente	... Nada	Qué	Algo
Distinción	Cuál	Cualquiera
Número	... Ninguno	Cuánto	Alguno	...	Cuantoquiera
Modo	Cómo	Comoquiera
Tiempo	... Nunca	Cuándo	Cuandoquiera
Lugar	Dónde	Dondequiera
Persona	... Nadie	Quién	Alguien	...	Quienquiera

Hemen erakusten dugun zerrenda lauki hau hizkuntzaren oinarria dugu, oinarria eta funtsa. Edozein hizkuntzaren zimenduetan ezinbestean agertu behar duena, hizkuntzaren hasiera dagoelako hortxe. Hasierako oinarritzko usteak nolabait lotu eta eratu beharra izan du gizakiak eretxiak sortzeko, garatzeko, adierazteko eta trukatzeko. Eta euskerak erakusten digun lauki hau benetan zoragarria dugu.

Gogoan izan behar dugu berrogeta zortzi hitz ditugula lauki horretan eta guztiak erabiliak direla gaur egun ere. Bistakoa da honetan ere erderen eragina ageri zaigula, baina tira, lauki hau egiteko eta ulertzeko gai izatea gaur ez dugu gutxietsi behar. Esaterako, era ustea garatzen duten zerrendetatik bat (*ezeia*) darabil euskaldungoaren erdiak eta bestea (*inola*) beste erdiak. Hau, seguraski, erderaren eragina izango da. Baina garai zaharretan biak batera erabiliak izango zirela uste dut. Bata izakien mailan eta bestea gizakien mailan.

Berrogeta zortzi hitz hoietatik berrogeta bi erabilten ditu euskaldun bakotxak bere eguneroko jardunean. Guztietan bi ageri zaizkigu makal samar (*ezeinez* eta *zeinbait*) baina erabili iten dire. Beste guztiak oso bizi eta indartsu ditugu oraino. Hoiez ganera, beste forma pila bat ere erabilten du euskaldun bakotxak: *zer-edo-zer* (*zeozer*), *noiz-edo-noiz* (*nonoiz*), *non-edo-non* (*nunun*), *zergura*, *zeingura*, *zenbatgura*, eta segidako guztiak. Baina benetako oinarria, laukian agertzen zaizkigunak ditugu.

Gaztelaniak arlo honetan duen erakera erakusten dugu beste laukian, gure irakurleak arazoa hobeto ulertu dezan. Ageri danez, gaztelaniarentzat arlo hau guztia interrogatiboen arazoa baino besterik ez da. Arlo honetan ari izan diren euskalariak ere horrela jokatu izan dute, interrogatiboetan oinarri eginez. Baina argiro ikusten da euskeran galdegileak ez direla ez oinarri, ez galdegile huts ere, ustearen adierazpen zuzena egiten duten hitzak baizik.

Gaztelaniak hogeitaz hitz bakarrik ditu zeregin horretarako. Hala ere, esan beharrekoak esaten ditu beste era bat sortuz ("*ningún*", "*algún*", eta "*cualquier*" hitzak erabiliz). "*Ninguno de ellos*", "*de ningún modo*", "*en ningún lugar*" / "*alguno de ellos*", "*de algun modo*", "*alguna vez*", "*en algun lugar*", etab. Hizkuntza bakotxak esan beharrekoak esaten ditu bere erara, baina era batetik bestera aldea dago.

Hitz loturagileak izendatu ditugu euskerazko laukikoak. Izan ere, hasierako berezko usteak izakia, bereiztasuna, zenbatasuna, era, aldia, lekua, gizakia eta honen era, lotu egin behar dire erakera batean, hitz sare bat sortzeko, eta horixe da hizkuntzaren hasiera. Lotu hitzaren zentzua hemen erderazko "*fijar*" hitzarena da.

4. Hitz loturagileak

Erderaz "*sentido gramatical*" edo horrelako zerbait izendatuko genukeen lotura-hitz zerrenda bakotxari izena ipintea ez da zeregin erraza, baina bai ezinbestekoa. Beraz arriskatu egingo gara, egokiro egin edo ez.

1.- Usterazleak

Hauek, ustearen erroitik datozkigu, eta baiezkoak eta ezezkoak ditugu. Gaztelaniaz "*absolutivos*" izango lirake, bai eta "*positivos*" eta "*negativos*" ere. Baina gaztelaniak ez du "*absoluto*" zentzu hori erabilteko eta adierazteko gaitasunik eta ohiturarik. Beraz, arlo honetan euskeraren senean ibili behar dugu eta erdera bakean utzi.

Ikuspegi asko ditugu zerrenda honetan gogoan izatekoak. Bat, baiezkoak ditugula lauki osoko hitzen sorburu eta oinarri, uste bakotxaren gogoratze orokorra egiten ditugutelako.

Beste bat, ezezkoak baiezkoen ukatze soila baino ez ditugula, baina ukapen hori ere orokorra izaten dugula. Euskerak bere erroetatik beti horrelaxe jokatzen du, negatiboak egiteko positiboak ukatuz. Ukatzaile nagusienean ere horixe egiten du: **bage (ba-ge)**. **Ba** positiboa ukatu egiten du **ge** negatiboarekin. Eta horretatik sortzen zaizkigu: *bagerik (barik)* eta *bageko (bako)*. Hemen ere osotasun polit bat bagenuen baina Donostialdeko metatesi horrek (*gabe-k*) guztia izorratu du. Gure euskalariak begi zorrotzagoz ikertu izan balute hizkuntza, euskera batuaren sorrera izan behar zen berriztatze on baterako aukera. Baina zoritxarrez aukera galduz josia dugu gure historia.

Gaur egun ere, Gipuzkoako Goierri aldean *bahe* da hitzik erabiliena zentzu horretan (*bage, bahe, bee, be, pe*). Ezagutzen dut ETBko esatari bat bere sorterriko hizkeraz egiten duena eta **bage** esaten duena beti. Izan ere, ez aspaldi, sortalde osoan *bage* zan forma erabilia eta idatzia, Nafarroan eta Araban ere bai. Bizkaian **baga** (*bagea-tik*), baina orain guztia dugu hondatua, eruditoen *gabe* horrekin. Horrelaxe goaz amildegirantz pizkaka, pizkaka (eta ez *pizkana, pizkana*), hau beste zentzu batekoa dugulako.

Gogoan izan behar dugu baiezkoek eta ezezkoek bitsuek erakusten digutela orokortasuna (absolutoa), eta erabileran **-ik** izaten dutela atzizkitzat: “baduzu *dirurik?*”, “ez, ez dut *dirurik*”. Baina erantzuna baiezkoa danean, “bai badut *dirua*” (eta ez *dirurik*). **Ik** honek orokortasunaren zentzua dakarkigu eta galdera horretan munduko diru mota eta kopuru guztiak sartu daitezke. Ez ordea baiezko erantzunean, hor zerbait konkretua izaten dalako. Konkreteetan **ik** erabiltzea oraintsuko izurritea dugu, hogeituz honakoa. Beste norbaitzuen aurkikunde marabillosa.

Beraz, argiro ikusi behar dugu **ik** hori ez dugula partitiboaren marka, absolutiboarena baizik. Eta absolutoetan bakarrik erabili behar dugula, betikoa izan dan eran.

Nabarmentzekoa da gaztelaniak ezezkoetan bakarrik dituela dituen hitzak: *nada, nunca, nadie*. Eta honetatik sortzen zaiela filosofian elukubrazioak egiteko aukera. “*Al principio era la nada*”. Baina nola demontre esan dezake horrelakorik gizaki batek, *nada* hori ez izatea bada, **ez dana** zer **izan** daitekeen asmatzeko edo irudikatzeko gaitasunik ez baitu oraino gizakiak.

Badugu beste arazo larri bat ere arlo honetan: hiztegiileen **ezer, inor** etab. erakustean honako hau egin izan dute: *ezer = nada, algo*; *inor = nadie, alguien*. Egia esan beharrean gazteleak ez duela hoin mailako edo pareko hitzik, ez usterik, zerbait esan (gezur hutsa) eta putzutik urten. Gero, irakasleek hiztegian hartu eta umeei irakatsi zerbait ona egiten dutelakoan. Orain dala hamar urte izurrite gogorra izan genuen honako hau. Ikastoletako umeei tematu egiten zidaten neroni ere: “Bai, *ezer ‘nada’* da, irakasleak holaxe irakasten digulako”.

Gaur badirudi arazoa konponduz doala, baina gure hizkuntzak hainbeste itukin duenez, gogor egin beharra dugu honetan ere.

2.- Adierazleak

Gaztelerao interrogatiboak, gaur askok **galdegileak** izendatuak. Ezin daiteke ukatu galdegile zeregina betetzen dutenik, baina usterazle baiezkoak ere erabilten ditugu galdeketa zereginean, eta berdin zaterazleak ere. Zerrenda horretako hitzek ustearen adierazpen zorrotz bat egiten digute, garbi-garbia, beste ezelako zentzurik agertzeke. Eta beste zerrendak sortzeko sorgailu ditugu (*zerbait, edozer, zernahi*).

Gaztelanian zerrenda hauxe, interrogatiboena, da lauki osoaren oin eta enbor, gorputz eta arima. Argiro ageri zaigu hizkuntza biok, euskera eta gaztelera, oso ezberdinak direla bai erakeran eta bai ustekeratan ere; beraz, alkarren konparaketak eta kopiaketak egitean kaltea besterik ez zaio egingo biotako bakotxari.

3.- Zaterazleak

Erderazko partitiboak. Izan ere, oinarriko usteak dakarkigunaren zati edo parte bat adierazten dute. Ikusten dugunez, zerrenda osoa dugu bizirik eta indartsu, erabilera handia duelarik gure hizkeran. Ustea garatzeko, **gi (ki)** atzizkia erabilten du: zaihez**ki**, gantzag**i**, goz**oki**, ardiki, baraz**ki**, urdagi... Zerrenda luzea dugu honetatik sortzen zaiguna.

Euskera ezagutzen duenak badaki **-ik** atzizkiak ez duela arlo honetan inolako zeregirik, baina horixe irakasten zaie gure ikasle guztiei.

Gaztelaniari dagokionean, zera esan daiteke, ez duela benetako partitiborik eta uste hori ez dala garatzen gaztelania hizkuntzan.

Euskeran, ordea, hastapenetatik ageri zaigu, eta hitz zahar asko horretatik sortuak direla esan daiteke.

4.- Zalantzazkoak

Hauetan, zerrenda osoa da erabilia eta oso bizirik dagoena. Baina gaztelera honen arrasorik ere ez duenez, euskeran ere azkenean, betiko patua betez, aukeragileekin bat egin behar.

Euskaldunak, euskaldun zaharrak nolabait esateko, badaki ez direla gauza bera *edozer* eta *zernahi*, eta berekiko egingo du bereizkuntza, baina goi mailakoek onartzen ez dutenez, apurka-apurka badoa bereizkera hori ilunduz eta gaztelaniara parekatuz.

Euskaldunak “edonor etorri daiteke” esaten duenean, badaki etorri daitekeen hori ustetik ere ez duen norbait (edonor) izan daitekeela. Baina “nornahi ekarri dezakezu” esaten badio semeari, badaki semeak aukeratzen duen norbait izango dala.

Beste forma batzuk ere erabiliak ditugu; lehen aipatu ditugun *zer-edo-zer, nor-edonor*, etab.

5.- Aukeragileak

Hauek ere erabilera handia dute euskeran eta erderakoekin parekatzen dira. Sarritan **nahi** hitzaren ordezt **gura** hitza izaten da erabilia: *zergura, nongura, zenbatgura...*

Honetan ere gogoan izan behar dugu aberastasun bat galdu duela euskerak, erderaren eraginez.

Zerrendak ustearen erara egiten baditugu, hau da, *ezer-zer-zerbait* eran, ondorio hauek

izango ditugu: ustekera bakotxeko edo bakotxetik sortzen zaizkigun hitzek atzizki bat (batzuetan gehiago) hartzen dutela hitza burutzeko.

Honela:

- Ezer.** Zerrenda honetako hitzek beti **-a** hartzen dute: etxea, mendia, ogia, bidea.
- Ezein.** Zerrenda honetakoak **-xe** izaten dute ezaugarri: hau**xe** eta ez hori; hol**axe** eta ez bestela; hement**xe** eta ez beste inon; oraint**xe** eta ez gero. Hau bereizgilea dugu eta ez intensiboa, oraingo eskolan irakasten dan eran. Intensiboa **ber** dugu. **Berau**, **ber-t-an**, **bera**.
- Ezenbat.** Ustekizun honen erabilera eratzeko, zenbakiak ditugu garrantzitsuenak. Eta asko, gutxi eta horrelako aditz lagunak.
- Ezela.** Zerrenda honetakoak eta berdin **Inola** zerrendakoak batez ere **-la** hartzen dute:
hau = honela; hori = horrela; bestea = bestela; bera = berela (bezela). Honetan ere ageri zaigu **r/z** aldaketa. Baina oraingo *bezala* ez dakit nondik sortua dugun. Sarritan **n** itsasten zaie zerrenda honetako hitzei: zelan, ezelan, edozelan, baina ez dirudi errokoa danik jorera hori.
Argiro ikusten da hasierakoak **ezer-la** eta **inor-la** ditugula.
Beste atzizki batzuk ere erabiliak ditugu arlo honetan:
-ro = astiro, aguro, geldiro, txarto, ondo...
-ki = poliki, emeki, ederki, ongi, egoki, Eta aurreko biok batera: egokiro, gizonkiro,
- Inoiz.** Batez ere **-n** izaten da zentzu honetako hitzek erabilten duten atzizkia: Goizean, gauean, aintzinean, geroan... baina ez hitz guztietan erabilia.
- Inon.** Honetan ere berdin, aurrekoan bezela: mendian, etxean, bidean.
- Inor.** Ustekizun hau zehazteko izenak ditugu zehazgailu.
- Inola.** Ustekizun hau eta **Ezela** berdinak ditugu funtsean. Beraz, besteaz esandakoak balio du honetarako ere.

Hazia erein ondoren

Ezkur bat lurrean sartzen duzunean, zure irudimenean halako aritz eder bat amets egitea izango duzu ondorio.

Lan hau ere, berrogeta urtetan neure berezko ordenagailuan erabili ondoren, argitara egiten dut honako honetan. “*Bazan ordua!*” esaten didate adiskide batzuk. Nik, ordea, beldurra izan dut sarritan ezingo ote nuenetz argitarazi. Ez baitzegoen horretarako girorik.

Gure eruditoen mundua beste galaxia baten bizi zala oharturik nengoen aspaldietatik. Saiatu izan naiz batari eta besteari hitzez adierazten arazoa baina alferrik. Geozentrismoan sinesten duenari heliozentrismoaz hitz egitea bezelaxe. Eta beldurra sartzen zitzaidan.

Oraingo honetan, ordea, gure euskal munduan halako bihurgune handi baten kinkan sarturik garela arlo askori dagokienez, ohartzen hasia naiz. Eta *Juan Zelaia* saiakera lehiaketak eskaintzen didan aukera ustiatuz, hazi hau ereitea erabaki dut.

Ea lur onean egokituz, erne eta erro luzeak hasten dituen. Eta zur oneko aritz baten antzeko, adar luzeak eta ezpal onak ematen dituen. Hala bedi!

Aurkibidea

1. Zergatik Initza?	311
2. Gaiari buruz	311
3. Initza: erroa, garadura	315
Hitz loturagileen zerrenda	325
Gaztelanian. Tabla de fijación	325
4. Hitz loturagileak	326
1.- Usteazleak	326
2.- Adierazleak	327
3.- Zaterazleak	328
4.- Zalantzazkoak	328
5.- Aukeragileak	328
Hazia erein ondoren	331

Bittor Kapanaga Interneten

Ahotsak. *Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia:*

- 26 pertsonari egindako elkarrizketen bideoak.
- Bergarako UNEDen 1995ean emandako *Euskaldunen erlijio zaharra hitzaldiaren audioa*.
- Hitzaldiaren transkripzioaren pdf-a.
- Youtube: *Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia*. 15 minutuko dokumentala.

EITB: Bittor Kapanagari omenaldia. (2014-08-12)

Euskeraren Jatorria Taldea: Bittor Kapanaga. Euskerarenjatorria.net

Mendebalde Euskal Kultur Taldea: 2001. Xabier Amuriza. "Ikerlari-pentsalari". *Euskalkia eta Hezkuntza*.

Argia: 2005-09-25. 2008 alea. "Singularra defendatzeari eman nahi geratzen zaizkidan urteak". Julen Gabiriak eginiko elkarrizketa.

Berria: 2005-10-30. "Hizkuntzak, itsasoak bezala, beti joko du bere eremuak berreskuratzeraz". Iñaki Petxarromanek eginiko elkarrizketa.

Oharra: Ez ditugu helbide osoak jarri luzeegiak direlako. Bilatzailea erabiliz erraz aurkitu daitezke aurkitu beharrekoak.

